

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 415.000 euro emango dizkie ekintza humanitario espezializatueta esku hartzeko eta garatzeko hezkuntza-proiektuei

*GGKEek beren proposamenak maiatzaren 14a eta 20a baino lehen aurkez ditzakete, hurrenez hurren*

Jueves, 25 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak banatzeko deialdia onartu du: [garapenerako hezkuntza-proiektuak eta sentsibilizazio-ekintzak](#) burutzeko, eta garapenean dauden herrialdeetan [ekintza humanitario espezializatuko esku-hartzeak](#) finantzatzeko.

Bi deialdiek guztira 415.000 euroko aurrekontua dute eta Gizarte Politiken Iñigo Alli kontseilariaren bi foru-agindurekin araututa daude, aste honetan Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu direnak.

[Haietako lehenak](#) 115.000 euroekin finantzatu dituzte garapen-bidean dauden herrialdeei eragiten dieten arazoengatik Nafarroako gizarteak duen ulertzeko modua hobetzen laguntzen duten ekimenak, eta mundu independentearen kontzientzia eta ulermen kritikoa sustatzen dutenak.

Hezkuntza formalaren arloan egingo diren garapenerako hezkuntza-proiektuak izan daitezke, baina baita sentsibilizazio-ekintzak ere. GGKEek beren proposamenak maiatzaren 14a baino lehen aurkez ditzakete, eta ekimen nahiz modalitate bakoitzeko, gehienez ere, 25.000 euro eskatu ahaliko dute.

### Ekintza humanitario espezializatuaren esku-hartzeak

[Laguntzen bigarren deialdia](#), 300.000 eurokoa, nazioarteko lankidetzaren modalitate horretan GGKE espezializatuak aurten garapen-bideko herrialdeetan egindako ekintza humanitarioko esku-hartzeak finantzatzeko da.

Ekintza horiek hondamendi natural fasean edo gizakiak sortutakoetan gara daitezke eta krisi humanitario kronikoen hipotesietan. Proiektuak maiatzaren 22an baino lehenago aurkeztuko dira 150.000 euroko gehieneko zenbatekoarekin eta unean uneko egoerarako plan bat izan beharko dute; plan horretan erabili beharreko erantzuteko estrategiak, akordioak eta prozedurak jasoko dira hondamendi-egoera bati aurrea hartzeko.

Helburu zehatzen jarduketa Gizarte Politiken Departamentuaren eta erakunde onuradunen artean adostuko da larrialdi edo krisialdiko egoerak gertatzen diren momentuetan.